

3/2015 akta

OSATEK SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2015eko AZAROAREN 30ean EGINDAKO BILERAREN AKTA.

Lehendakariak deituta Administrazio Kontseilua osatu da Osasun sailburuak Gasteizko Donostia-San Sebastián kalean duen bulegoan 2015eko azaroaren 30ean goizeko 12:00etan. Jarraian adierazi dira bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Guillermo Viñegra García jauna

BATZORDEKIDEAK

Pedro M^a Hernando Arranz jauna

Jon Etxeberria Cruz jauna

Antonio Arraiza Armendariz jauna

Susana López Altuna García andrea, idazkari-lanetan.

Bilerara bertaratu da, hitzarekin baina botorik gabe, Jesús Escauriaza jauna, ekonomia- eta finantza-zuzendaria.

Ezinbesteko arrazoiengatik ezin etorria adierazi dute Fernando Aguirre de Miguel jaunak eta Ignacio J. Berraondo Zabalegui jaunak.

GAI ZERRENDA:

- 1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**
- 2. Osatekeko zuzendari gerente berria aukeratzeko deialdia.**
- 3. Administrazio Kontseiluan beste kontseilukide bat sartzea.**
- 4. Guerbet SA enpresaren dohaintza.**
- 5. Galde-eskeak**

1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.

2. Osatekeko zuzendari gerente berria aukeratzeko deialdia.

Administrazio Kontseiluan elkartu diren kideen gehiengo absolutuak erabaki du, Sozietatearen Estatutuetako 13. artikuluari jarraituz, deialdi publiko bat egitea Osatekeko zuzendari gerentearen lanpostua betetzeko Osakidetzako Zerbitzu Erakundeetako zuzendaritza-karguak betetzeko prozeduraren bitartez.

Aurkeztu ahal izango dira Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetara atxikitako langile finkoak, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako funtzionarioak eta bestelako langileak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Goi-mailako unibertsitate-titulu bat izatea.
2. Administrazio- eta kudeaketa-lanetan esperientzia izatea.
3. Sektore publikoaren gaineko kudeaketan prestakuntza izatea.

3. Administrazio Kontseiluan beste kontseilukide bat sartzea.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak adierazi du, Osateken barruan Euskadiko gizarte-sistemako laguntza-zerbitzuak–Teleasistentzia Zerbitzuak hartu duen garrantzia dela-eta, komeni dela profil sozial hori duen kide bat sartzea Kontseiluan, eta proposatu du leku hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko sailburuorde denak betetzea, eta une honetan pertsona hori Lide Amibilia Bergaretxe andrea da.

Sozietatearen Estatutuetako 11.2 artikulua arabera, Administrazio Kontseiluak erabaki du proposamena Akziodunen Batzar Nagusira eramatea hark izenda dezan.

4. Guerbet SA enpresaren dohaintza.

Zuzendari ekonomikoak LABORATORIOS FARMACEÚTICOS GUERBET SA enpresatik jasotako proposamenaren berri eman du. Adierazi du hirurogeita hamabi mila ehun

eta laurogeita hamabost euro eta hirurogeita sei zentimo (72.195k,66€) emango dizkiela konpentsazio moduan aipatutako enpresak hornitutako, eta maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren eraginpeko, sendagaien erosketa-prezioaren gainean dedukzioa aplikatu ez izanagatik.

Kontseiluko kide eta idazkari den Susana López Altuna andreak aurkeztu duen aldeko txosten juridikoa oinarri hartuta, honakoa erabaki du aho batez Administrazio Kontseiluak:

LEHENA.- Sozietatearen izenean eta ordezkaritzan eta dohaintza moduan onartzea LABORATORIOS FARMACEÚTICOS GUERBET SA enpresaren hirurogeita hamabi mila ehun eta laurogeita hamabost euro eta hirurogeita sei zentimoak (72.195,66€) aipatutako enpresak hornitutako, eta maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren eraginpeko, sendagaien erosketa-prezioaren gainean dedukzioa aplikatu ez izanagatik konpentsazio moduan, aipatutako arauan aurreikusitako baldintza eta terminoetan eta zuzendari nagusiaren abenduaren 22ko 1925/2011 Erabakian aurreikusitako zehaztasunen arabera. Xehetasuna atxikitako dokumentuan dago adierazita.

BIGARRENA.- LABORATORIOS FARMACEÚTICOS GUERBET SA enpresak banku bidezko transferentzia bidez egingo du ordainketa, eta kopurua (72.195,66€) Osatek SA sozietate publikoaren 2095 0611 01 3830706131 kontuan sartuko du erabaki honen berri enpresa dohaintza-emaileari eman eta 30 eguneko epean gehienez ere.

HIRUGARRENA.- Diru-kopuru hori sozietatearen balantzean sartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri LABORATORIOS FARMACEÚTICOS GUERBET SA enpresari eta Osatek SA sozietate publikoaren Akziodunen Batzar Nagusiari ematea.

5. Galde-eskeak

Pedro Hernando Arranz jaunak Kontseiluaren azkeneko bileran onartutako inbertsioak zertan diren galdetu du.

Zuzendari ekonomikoak erantzun dio Galdakaoko unitaterako ekipoa Siemens SA enpresari esleitu zaiola eta instalatzen ari direla.

Abenduaren 8rako dago aurreikusita imana sartzea eta 14-15erako eremua igotzea.

Urdulizko unitaterako ekipolari dagokionez, 2016ko urtarrilaren lehenengo hamabostaldian aurreikusten da kontratazio-espedienteari hasiera ematea, eta 2016ko ekainerako instalatuta izatea.

Aurreikusitako inbertsioa 1.300.000 euro ingurukoa da, eta aurkeztutako aurrekontuarekin egingo da.

Kontseiluko lehendakariak galdetu du zertan den teleasistentziako espedientea.

Zuzendari ekonomikoak adierazi du egungo espedientearen mugaeguna 2016ko abuztuak 31 dela, eta lehiaketa berria egiteko baldintzak prestatzen ari direla.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da Kontseiluaren bilera adierazitako eguneko 14:00etan.

Bilkurako akta irakurri, onartu eta sinatu egin da.

IDAZKARIA



Sin.: Susana López Altuna García

LEHENDAKARIA



Guillermo Viñegra García